

ESKOLAKO AGENDA 21

2015-2016 IKASTURTEA: "BIOANIZTASUNA"

DIMAKO FOROA 2016.05.23

Bileraren lekua: DIMAKO UDALA

Hasera eta amaiera: 10,00-11,15h

Bertaratutakoak Eskolen arteko Forora:

Dimako Alkatesa eta zinegotzia

Dimako Ugarana ikastetxeko 5 eta 6 mailako ikasleak eta irakasleak

Arratiako Mankomunitateko Teknikaria: Aitor Uriguen

Ingurugela-CEIDA: Miren Agirreazkuenaga

ONDOAN, S. Coop: Leire Egaña

Guztira: 30 pertsona

Gai-zerrenda

- Urtean egindako lanen aurkezpena Udalari ezagutarazi.
- Ikastetxeak hartutako konpromisoen eta Udalari zuzendutako proposamenen aurkezpena Eskolen arteko foroan adostutakoak barne).

Alkatesak ongietorria ematen die bertaratutako guztiei. Ondoren, Dimako ikastetxeko ikasleek ikasturtean zehar egindako lana aurkezten dute, baita hartutako konpromisoak eta udalari luzatzen dizkieten proposamenak ere.

Ikasturtean garatutako ekintzen barnean honakoak aipatzen dituzte ikasleek: Habitat eguna, gaztaina eguna, jasangarritasunaren astea, bizikleta eguna, Pagoetara bisita, azoka eguna elkartrukerako, Urertxura bisita erleen museora, Zuhaitz egunean haritza, pagoa eta lizar landaketak egitea, eskola baratza, konpost-gailuaren jarraipena, herriko diagnostikorako ibilbidea, Gorbeialdea Parkera bisita, e.a.

Ondoren, 2015-2016 ikasturterako Udalari luzatutako proposamenak eta ikastetxeak hartutako konpromisoak aurkezten dituzte:

Dimako proposamenak udalari

1. Ikastetxearekin, ekintza desberdinak garatzeko koordinatzeko prest egotea.
2. Basoak (botatzen) ustiatzen direnean, sarritan bideak deseginda eta lohi gelditzen direnez udalak horrelakorik ez gertatzeko ez ardura hartzea.
3. Intsektizida edo pestizidarik ez erabiltzea bazterrak garbitzeko, erle eta beste animalia askorengan kalte handia egiten duelako.

Dimako proposamenak udalari

4. Bao landaketak egiten direnean zuhaitz autoktonok ipintzea.
5. Eskolako patioan zaborra sailkatzeko ontzi ezberdinak ipintzea.
6. Espezie exotiko inbaditzaileen kontra jardutea, panpako lorea esaterako
7. Ibaien aldeko kontzientziazio kanpainak sustatzea.
8. Hondatuta dauden iturriak konpontzea eta garbi mantentzea
9. Neguan gatza botatzerakoan kontu izatea, honek landareak eta belarra erretzen duelako
10. Arriskuan diren espezieak defendatzea eta zaintzea. Bertako kangrejoa, saguzarrak, bisoia, e..
11. Txirriak aparkatzeko gailua eskolaurrean ipintzea.

Dimako ikastetxearen konpromisoak

1. Zuhaitzak identifikatzeko kartelak egin
2. Erreka garbi mantendu, erreka eguna ospatu
3. Eskola ingurua garbi mantendu, herria txukun mantentzen saiatu, hondakinak euren ontzietara bota.
4. Ingurumenaren aurkako eragin negatiboa duen zerbait ikusten badugu, Udalari abisua pasatu
5. Ikastetxean, gelan landareak-lorak zaintzea, ureztatu eta jagotea
6. Papera ondo aprobetxatzea, zuhaitz gutxiago moztu daitezten.

Aurreko ikasturteko proposamenen inguruan (ikus 2014-2015eko akta) Udalak esaten du kontutan hartzen ari dela eta aurreko proposamenen eta proposamen berrien jarraipena egiteko onena ikasturte hasieran ikastetxea eta Udalaren artean koordinazio batzarrak egitea dela deritzo.

Aurrekoarekin batera, ikasleek 2016ko maiatzaren 16an Arratia mailako Eskolen arteko foroan hartutako konpromiso eta proposamen bateratuak ere aurkezten dizkiote Alkatesari.

Arratia mailako proposamenak udalari

1. Arriskuan dauden espazioak defendatzea eta zaintzea
2. Baso landaketak egiten direnean bertako zuhaitzak landatzea eta identifikatzea.

Arratia mailako ikastetxeen konpromisoa

1. Arriskuan dauden espezieak identifikatu eta zainketa nola egin behar den aztertu.
2. Bertako zuhaitzen kartelen edukien diseinua egin.

Alkatesak zoriontzen ditu ikasleak egiten duten lanagatik eta amaitzeko taldeko argazkia ateratzen da.

Jarraian, Udal foroko argazki batzuk bildu dira.



Ikasleak talde lanean, konpromiso eta proposamenak eztabaidatzen



Dimako o foroan parte hartu duten ikasleen argazkia

MILA ESKER GUZTIOI ETA ZORIONAK EGINDAKO LANAGATIK!